

JARDUERA OROKORRAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia:

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2. eta 3. blokeak

Inguruaren ezagutza: 3. blokea

Komunikazioa eta adierazpena: 1. eta 4. blokeak

IDENTIFIKA DITZAGUN SENTIMENDUAK

Garapena

1. fasea

- Esan neska-mutilei egoera batzuk azalduko dizkiezula, eta jartzeko egoera horietako bakoitzari dagokion aurpegiera. Adibidez:
 - Aspaldi ikusi ez duzuen adiskide bat bisitan etorriko zaizue.
 - Zuen lagunik onena bidaia bat egitera joango da eta denbora askoan ez duzue ikusiko.
 - Gauza bat nahi zenuten eta ez dizuete eman.
 - Opari bat egin dizuete eta ez zenuten espero.
 - Norbait zerbait esaten ari zaizue eta zuek adi-adi entzuten ari zarete.
- Begiratu neska-mutilek aurpegiera egokiak jartzen dituzten, eta ondo ulertzen ez dituzten kasuetan dagozkienak egiten lagundu.

2. fasea

- Ondoren, jarri neska-mutilak bi ilaratan; ilara batekoek ikusi egingo dituzte, eta bestekoak bizkarra emanda egongo dira. Azaldu aurpegiera batzuk erakutsiko dizkiezula, ilara batekoek imitatu egin beharko dituztela aurpegiera horiek, eta beste ilarakoek asmatu beharko dutela zer gogo-aldarteri dagozkien.
- Aurpegiera batzuk egin ondoren, beste ilarari bizkarra eman, eta beste aurpegiera batzuk egin.
- Bukatzeko, hausnarketa egin, besteak beste honelako galderak eginez:
 - Ondo pasatu al duzue? Zer sentitu duzue?
 - Zaila iruditu al zaizue gogo-aldarreak identifikatzea?
 - Eta zaila iruditu al zaizue aurpegierak egitea?
- Azaldu garrantzitsua dela jendearen gogo-aldarrea eta sentimenduak ezagutzea, behar izanez gero laguntzeko, esan edo egin dugun zerbaitek mindu edo gogaitu egin dituen jakiteko, edota alaitasun-uneak elkarrekin ospatzeko.

Benetako superheroiek badakite besteak nola sentitzen diren.

NI ERE IZAN NAITEKE BENETAKO SUPERHEROI

Beharko dugun materiala

Kontrolerako koadrantea (tamaina handian inprimatu eta gelan ondo ikusten den leku batean jarri).

Aurretiazko oharra

Gutxienez lau asteko iraupena izango du jarduerak, baina hezitzaileak egindako plangintzaren arabera izango da.

Maiz gogorarazi beharko ditugu balio bakoitzari lotutako helburuak, eta adierazi beharko dugu garrantzitsua dela helburu horiek betetzea:

Helburua: Elkartasuna

- Zaindu egiten ditut ikasgelako materialak, eta ikasgela txukun eta garbi izaten laguntzen dut.
- Ikasgelan eta jolastokian, lagundu egiten diet laguntza behar dutenei.

Helburua: Errespetua

- Bileretan, beti errespetatzen ditut hitz egiteko txandak.
- Adi-adi entzuten dut besteek esaten dutena.

Helburua: Eskuzabaltasuna

- Ikasgelako materialak, jolasak eta jostailuak besteekin partekatzen ditut.

Aste bakoitzaren bukaeran, helburuak zenbatek bete dituzten kontuan hartuta, pegatinak mantentzen dituzten ikasleak zenbat diren zehaztuko dugu. Ez dugu inoren izenik idatziko, kopurua bakarrik. Horrela, ikuspegi orokorragoa izango dugu jardueraren garapenari dagokionez, eta ikasleek helburuak betetzeari dagokionez. Balio bakoitza, dagozkion helburuekin, bereiz kontabilizatuko dugu astero. Horrek esan nahi du aste horretan balio baten pegatina mantentzea lortu badute ere, ikasleek balio horri dagozkion helburuak betetzen jarraitu beharko dutela, bestela galdu egingo baitute pegatina.

Garbi utzi behar da ez dela nahikoa hiru pegatinak lortzea; garrantzitsuena da pegatinak denek mantentzea eta balioek eskatzen duten moduan jarduteko ahalegina egitea.

Garapena

- Jarri gelan kontrolerako koadrantea. Esan neska-mutilei Benetako Superheroien Akademiako pegatinak mantendu ahal izateko, zutabeetan agertzen diren helburuak bete beharko dituztela, eta hainbat astez egingo dugula jarduera.
- Aste bakoitzaren bukaeran, bileran, panela errepasatu eta galdera hauek egin:
 - Zer pegatina mantendu dituzue aste honetan? Zergatik?

HAUR **EEZKUNTZA**



- Zer pegatina ez dituzue mantendu? Zer egin behar duzue pegatina horiek mantentzeko?

Benetako superheroiak beren eginkizuna betetzeko prest egoten dira beti.

KONTROLERAKO KOADRANTEA

	Elkartasuna Helburuak: - Ikasgelako materialak zaintzea, eta ikasgela txukun eta garbi izaten laguntzea. - Laguntza behar dutenei laguntzea.	Errespetua Helburuak: - Bileretan, hitz egiteko txandak errespetatzea. - Besteek esaten dutena entzutea.	Eskuzabaltasuna Helburuak: Besteekin partekatzea.
1. astea			
2. astea			
3. astea			
4. astea			

ELKARRI LAGUNDUZ

Beharko dugun materiala

Zuhaitzaren irudia.

Zuhaitzaren txantiloia-aren fotokopiak.

Koloretako margoak (orlegia eta marroia).

Aurretiazko oharra

Jarri neska-mutilak lau taldetan, eta zuhaitzaren piezak eta margoak honela banatu:

1. taldea: 1. pieza – Kolore marroia marroia

3. taldea: 3. pieza - Kolore

2. taldea: 2. pieza – Kolore orlegia orlegia

4. taldea: 4. pieza - Kolore

Lehen fase honetan, taldeko kide bakoitzak puzzleko pieza bera eta kolore bereko margoa izango du. Helburua da ezin izatea puzzlea beren kabuz osatu eta margotu.

Hausnarketa egin eta ideia hauek azpimarratu:

- Arazoen konponbideak bilatzeko, zein garrantzitsua den elkarren artean komunikatzea.
- Zein aberasgarria den beste pertsonekin eta gure iritzi berekoak ez direnekin komunikatzea.
- Denok behar izaten dugu besteen laguntza.

Garapena

1. Fasea

- Jarri neska-mutilak lau taldetan. Talde bakoitzari zuhaitzaren piezak eman, arestian adierazitako moduan. Zuhaitzaren irudia erakutsi, eta esan zuhaitzaren puzzlea osatzen saiatzeko.
- Denbora bat eman ostean, gogoeta egin, besteak beste galdera hauek eginez:
 - Osatu al duzue puzzlea? Zergatik ez?
 - Zer egin dezakezue arazoa konpontzeko eta talde bakoitzak bere puzzlea osatu ahal izateko?
- Utzi neska-mutilei konponbideak proposatzen, eta, behar izanez gero, lagundu konponbideak bilatzen: animatu taldeak elkarri galderak egitera, ikus ditzatela batzuen eta besteen irudiak, truka ditzatela piezak, eta abar.
- Konponbiderik aurkitzen badute, osa dezatela denen artean zuhaitzaren puzzlea.

Hausnarketa

- Bigarren gogoetaldi honetan, besteak beste galdera hauek egin:
 - Oraingoan bai, osatu duzue puzzlea. Zergatik?
 - Zer egin behar izan duzue puzzlea osatu ahal izateko?

- Bukatzeko, ikasle bakoitzak bere pieza margotuko du, eta denen artean zuhaitza osatuko dute; horrela, bete egingo dute helburua.

Gogoan izan benetako superheroiek badakitela lana taldean egiten eta taldearen ona dutela beti helburu.





JARDUERA OROKORRAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia:

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2. eta 3. blokeak

Inguruaren ezagutza: 2. blokea

Komunikazioa eta adierazpena: 1. eta 3. blokeak

Behariko dugun materiala

Koloretako margoak (horia, orlegia, marroia eta gorria).

Txisparen eredu eta margotzeko txantiloia.

Garapena

- Jarri neska-mutilak launaka.
- Talde bakoitzaren mahaiaren gainean, kolore bakoitzeko margo bat bakarrik utzi (horia, orlegia, marroia eta gorria).
- Esan neska-mutilei margotzeko Txisparen txantiloia, eredu dagoen bezala (petaloak horiz, zurtoina eta hostoak orlegiz, aurpegia marroiez eta ahoa gorriz).
- Begiratu prozesuan zehar taldeetan arazorik sortu den edo haien artean haserretu gabe partekatu dituzten margoak.
- Txantiloia margotu ondoren, jarri ikasleak biribilean eserita, eta besteak beste galdera hauek egin:
 - Nahikoa margo al zeuden?
 - Baten batek berarentzat bakarrik hartu al ditu margoak?
 - Nola lortu duzue zuen loreak margotzea? Margoak partekatu dituzue?
 - Zuen anai-arreba eta lagunekin partekatzen al dituzue gauzak?
- Adierazten dutenean oinarrituz, azpimarratu zein garrantzitsua den partekatzea, auzolana edo talde-lana egin ahal izateko.

Benetako superheroiak eskuzabalak dira.





BESTEETIKO ERRESKETUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK**Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia:**

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2. eta 3. blokeak

Inguruaren ezagutza: 3. blokea

Komunikazioa eta adierazpena: 1., 3. eta 4. blokeak

ZE ONDO EGITEN DUZUN!**Beharko dugun materiala**

Panpina bat edo txotxongilo bat.

Hezitzailearentzako oharra

Jarduera hau egiteko, gelan daukaten maskota erabil dezakezue, edo edozein panpina edo txotxongilo.

Baliagarria izango zaigu autoestimarekin, besteak baloratzearekin eta abarrekin lotutako gaiak lantzeko, panpinari buruz hitz egitean neska-mutilak errazago askatuko direlako.

Garapena

- Esan ikasleei biribilean esertzeko. Panpina atera.
 - Panpina berria baldin bada, aukeratu izen bat denen artean. Gero, ikasleak agurtu, eta bakoitzak bere izena esan dezala.
 - Panpina gelan ohikoa bada, esan panpinak ez duela oso buru ona, eta mesedez bakoitzak bere izena esateko.
- Ondoren, eta panpinaren bidez beti, esan oso garrantzitsua dela bakoitzak bere izena izatea, horrek bereizi egiten gaituelako beste pertsonengandik eta bereziak egiten gaituelako. Eta gauza bera gertatzen dela gure ezaugarri eta trebetasunekin. Esan panpinak gauza asko egiten dakiela, baina gehien gustatzen zaiona dela besteek ondo zer egiten duten jakitea eta esatea:

Ze ondo ----- (ekintza) duzun!

- Izan ere, hori jendeari maitasuna adierazteko modu bat da.
- Adibide gisa, panpinak hainbat gauza egingo ditu (abestu, salto egin...), eta, egiten duen bakoitzean, ikasleek txalotu egingo dute, eta esango diote: Ze ondo abesten duzun! (edo dagokiona).
- Gero, ikasle bakoitzak pentsa dezala zer egiten duen berak ondo, eta esan dezala. Ondoren, gainerakoek txalo egingo diote, eta esango: ----- (izena), **ze ondo ----- (ekintza) duzun!**
- Elkarriketa bultzatuko dugu taldean, besteak beste galdera hauek eginez:
 - Ikusi duzue nola pertsona bakoitzak izena duen eta trebetasunak dituen?
 - Gustatu al zaizue gauzak ondo egitean besteen txaloak jasotzea?
 - Gustatzen al zaizue zuen lagunak gauzak ondo egiten ikustea? Ondo iruditzen al zaizue besteak animatzea, gauzak ondo egiten dituztenean?

Benetako superheroiek errespetuz eta goxotasunez tratatzen dute jendea.

NATURAREKIKO ERRESPECTUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia:

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2. eta 3. blokeak

Inguruaren ezagutza: 2. blokea

Komunikazioa eta adierazpena: 1. eta 4. blokeak

KONTUZ-KONTUZ UREZTATZEN

Behariko dugun materiala

Paper orlegia.

Tipula-paper urdina.

Hezitzailearentzako oharrak

Jarduera honen helburua natura errespetatzeak duen garrantzia azpimarratzea da; bereziki, ura alferrik ez gastatzearen garrantzia, horrek batzuetan ahalegina egitea eskatzen digun arren (jarduera honen kasuan, landareak ureztatzeko altxatu behar izateak sinbolizatzen du ahalegin hori).

Jarduera egiten hasi baino lehen, tipula-paper urdinaren pieza karratuak moztu, ikasle bakoitzari puska bat emateko eta horrekin ur tanta bat egiteko.

Garapena

1. fasea

- Jarri zirkuluaren erdian orlegiz margotutako bi hosto. Ureztatu behar ditugun landareak sinbolizatuko dituzte. Esan landare bakoitzak gutxienez hiru ur tanta behar dituela bizirik irauteko eta ez lehortzeko. Landare guztiak ondo ureztatuta egotea izango da gure helburua.
- Ikasle bakoitzari tipula-paper puska bat eman, eta horrekin bolatxo bat egiteko eskatu. Bolatxo horietako bakoitzak ur tanta bat sinbolizatuko du. Eser daitezela biribilean, landareetatik hiru bat metrora gelditzeko moduan. Esan dauden lekutik, mugitu gabe, bolatxoak (ur tantak) kontuz-kontuz landareetara jaurti behar dituztela.
- «Tanta» guztiak erabili dituztenean, gertatutakoaren inguruan gogoeta egin, besteak beste galdera hauek eginez:
 - Zenbat ur tanta erori dira landare bakoitzean? Jaso al dituzte landareek bizirik irauteko behar dituzten hiru tantak?
 - Zenbat ur tanta galdu dira alferrik, landareetatik kanpora erori direlako?
 - Bete al dugu helburua?
 - Ondo erabili al dugu geneukan ura?

2. fasea

- Esan ikasleei bakoitzak bolatxo bat hartzeko eta berriro bere lekuan esertzeko. Azaldu oraingo honetan beste modu batera ureztatuko dituztela landareak: altxatu egingo dira, landareengana hurbilduko dira, eta hosto batean gainean utziko dute ur tanta. Begiratu beharko dugu landare guztiek behar beste ur tanta dituztela, eta banaketa berdintsua edo proportzionatua dela.
- Gertatutakoaz hausnartu, besteak beste galdera hauek eginez:
 - Zenbat landarek dauzkate gutxienez hiru tanta? Landareren batek hiru tanta baino gehiago ere ba al ditu?
 - Zenbat ur tanta gastatu ditugu alferrik oraingo honetan?
 - Bete al dugu helburua?
 - Oraingo honetan aurrekoan baino ahalegin handiagoa egin behar izan al dugu? Zergatik?
 - Zer ikasi dugu jarduera honi esker?

**Benetako superheroiek ez dute sekula ura alferrik gastatzen,
eta zaindu egiten dituzte izaki bizidunak.**

LANDATZEN ETA ZAINTZEN

Beharko dugun materiala

Hazi batzuk, loreontziak, lurra eta ura.

Garapena

- Esan neska-mutilei hazi batzuk landatuko ditugula eta horietatik sortzen diren landareak denon artean zainduko ditugula.
- Galdera hauek eginez, eman beharreko pausoak zehazten joan:
 - Zer behar dugu landare bat izateko?
 - Non jartzen da haziak?
 - Zer «elikagai» behar ditu haziak hazteko?
- Haziak landatu, eta egiten zoazen guztia pausoz pauso azaldu:
«Loreontzian lur pixka bat jarriko dut, ur pixka bat botako diot, eta lur hezea eskuekin nahastuko dut. Gero, zulotxo bat egingo dut lurrean, barruan haziak sartuko dut, eta lurrez estaliko dut.»
- Talde txikitan jarrita, ikasleek landa ditzatela gainerako haziak. Loreontziak leihoetatik gertu jarri, eguzkiaren argia jaso dezaten, eta astero ikasle bat izendatu ureztatzeko arduradun.
- Bi astean behin, bilera egin, esateko landareak nola dauden, eta galdetu zer den gehien kostatzen ari zaiena eta nola moldatzen ari diren.

Benetako superheroiek errespetatu egiten dute natura, eta zaindu egiten dituzte landareak eta gizakiak.